

**III. edizioa**  
**COPGI SARIAK,**  
**EHUko Psikologia Fakultateko Gradu**  
**bukaerako lanak**  
**Kategoria: Psikologia eta Teknologia Berriak**

**Deialdiaren oinarriak**  
**2023/2024 ikasturtea**

**ANTOLATZAILEA:**

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofiziala (COPGI)



**Laguntzaileak:**



PSIKOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE PSICOLOGÍA

## HELBURUAK

Psikologia eta Teknologia Berriei buruzko UPV/EHUko Psikologia Fakultateko ikasleen gradu-amaierako lanik onenak aintzatestea eta nabarmentzea da sarien helburua.

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak, sari hauen bidez, lanbidearen sustapen eta garapen tekniko eta zientifikoa, elkartasun profesionala eta lanbidearen zerbitzua gizartearentzat eta enpresa-ingurunearentzat sustatuko ditu.

Oro har, Psikologia Fakultateko ikasleek garatzen dituzten ikerketa lanak burutuz eta aztertuz lortzen den ezagutza aitortzen dute sariak.

Laburbilduz, hauek dira deialdi honen berariazko helburuak:

1. Ikasleek eta prestakuntza-zentroek Psikologia eta Teknologia Berrien arloaren eremuan egiten duten lana aintzat hartzea.
2. Psikologia eta Teknologia Berrien arteko harremanari buruzko ezagutzen zabalkundea, berrikuntza eta aplikazio praktikoa sustatzea.
3. UPV/EHUko Psikologia Fakultateko ikasleek Psikologia eta Teknologia Berriei buruzko ikasgaiak ikas ditzaten sustatzea.
4. Fakultate horretan garatutako proiekturik onenak jendearen eskura jartzea.

## DEIALDIAREN OINARRIAK

1. 2023/2024 ikasturtean gradu-amaierako lanak aurkeztu dituzten EHUko Psikologia Fakultateko Psikologiako graduako ikasle guztiek har dezakete parte deialdi honetan. Parte-hartzea ikasle bakoitzeko bat izanen da.
2. Gradu bukaerako lanak gai hauetako bati buruzko proiektuak izanen dira:
  - Teknologiaren erabilera problematikoak (sare sozialak, internet, mugikorra) eta horiek arazo psikologiko edo sozialekin duten lotura (antsietatea, depresioa, elikadura-jokabidearen nahasmenduak).
  - Online terapia psikologikoa: teknologien erabilera arazo psikologikoak tratatzeko.
  - Pazienteen jarraipena egiteko tresna digitalak.
  - Laguntza psikologikorako lineako foroak eta komunitateak erabiltzea.
  - Teknologiak erabiltzearen ondoriozko gizarte-arazoak (pornografia gehiegi erabiltzea, sharenting, cyberbullying, bikote ziberindarkeria).
  - Problematiken ebaluazioa teknologiaren bidez (app-ak, wearableak).
  - Telelanaren eragina lan-produktibitatean eta gogobetetzea.
  - Bideojokoak tresna terapeutiko edo hezkuntza-tresna gisa (gamifikazioa).
  - Etika eta pribatutasuna psikologia digitalean.
  - Adimen artifizialaren erabilera psikologiaren arloekin lotutako eremuetan.
3. Hautagaitzak soilik lanen egileek aurkeztu ahalko dituzte. Betiere, banakako lanak izan beharko dira.
4. Hautagaitzen formalizatzea. Erakundeak proposatutako proiektuak kontuan hartu eta Sariaren Epaimahaiaren iritzipean jartzeko, honako hauek bidali beharko dira:

- Gradu-amaierako edo masterreko lanaren kopia behar bezala koadernatuta Elkargora: PREMIOS COPGI 2024 - José Arana 15, behea, 20001 Donostia (Gipuzkoa).
- Kopia euskarri digitalean eta PDF formatuan donostia@cop.es helbidera.
- I Eranskinen kandidatura-ereduaren kopia betea. Eranskin hau gutun-azal itxian sartuko da, kanpoaldean lanaren izenburua gehituz.

Lanerako dokumentuak baldintza formal hauek bete beharko ditu:

- Lanaren titulua soilik agertuko da identifikazio modu gisa. Dokumentuaren lehen orrialdean egingo da.
  - Ez da egilearen identifikaziorik agertuko, dokumentuaren gainerakoan adierazitakoa baino haratago.
  - Lan bakoitzaren aurretik 300 hitzeko laburpena gehitu beharko da.
  - Lanen egitura librea izango da eta jatorrizko aurkezpenean parte-hartzaileek egokitzat jo dituzten irizpideei jarraituko die.
  - Proiektuak gehienez ere 30 orrialde izango ditu, gehi eranskinak.
  - Orrialde guztiak behar bezala zenbakituta egongo dira.
  - Taulek, koadroek, grafikoek eta irudiek dagokien izenburua izango dute.
  - Erreferentzia bibliografikoak eta bestelako dokumentu-iturriak dokumentuaren amaieran egon beharko dute, APA arauari jarraiki.
5. COPGIk parte-hartzaileek bidalitako kandidaturak jaso dituela adieraziko du. Ez da inolaz ere hautagaitzekin zerikusia duen korrespondentziarik izango.
  6. COPGIk bermatzen du hautagaiek emandako informazio guztia isilpean erabiliko dela, bai barneko langileen partetik bai epaimahaikideek partetik.
  7. Lanak aurkezteko epea 2023/2024 ikasturtean luzatuko da, eta azken eguna 202ko uztailaren 26a izango da. Ebazpena eta sarien entrega-ekitaldia 2024ko urrian izango dira.
  8. Epaimahaia 3 lagunek osatuko dute eta COPGIk izendatuko du. Epaimahaikideak honako hauek izanen dira:
    - Lehendakaritza: Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialeko Dekanoa
    - COPGIko Psikologia Klinikoko eta Psikologia eta Teknologia Berrien Arloetako arduraduna.
    - EHUko Psikologia Fakultateko ordezkari 1.

Erabakiak gehiengoz hartu beharko dira. Sariaren erabakia aukerakoa eta apelaezina izango da eta eman gabe utzi ahalko da.

9. Balorazio-irizpideak:

- Aurkeztutako proiektuaren berrikuntza- eta originaltasun-maila: 40 puntu.
- Enpresan duen eragin maila: 40 puntu.
- Proiektuaren aurkezpenaren kalitate maila: 20 puntu.

10. Lanen jabetza intelektuala errespetatuz, eta lanen egileen oniritziarekin, proiektu irabazleak artikulu formatuan argitaratu ahal izango dira Espainiako Psikologia Kontseilu Nagusiaren aldizkarian ("Papeles del Psicólogo) eta UPV/EHUren webgunean.

11. Beren ekimenez parte hartzen dutenek deialdiaren oinarri hauek onartzen dituzte, eta uko egiten diete erreklamazio guztiei.

12. Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak eta UPV/EHUK batera antolatzen duten jarduera-programaren barruan, sariak banatuko dira, horretarako egingo den ekitaldi publiko batean.

13. Sariak. Lehen sari bat, bigarren sari bat eta ohorezko aipamen bat emango dira.

Lehen saria:

-2025eko Estatu mailako Psikologiako Kongresurako bidai ordaindua autorearentzat eta honek aukeratutako laguntzaile batentzat. Honek barne hartzen du: Kongresurako inskripzioak, bazkariak, afariak eta joan-etorriak, baita honen diploma egiaztatzaileak ere.

-Elkargokide izateko urtebete doan.

-Opari oroigarria eta lortutako saria egiaztatzen duen diploma.

Bigarren saria:

-2025eko Psikologiako Kongresu Nazionalera joatea, egilearen gastu ordainduekin, Kongresura joatea, bazkariak, afariak eta joan-etorriak barne, eta diploma egiaztatzaileak.

- Elkargokide izateko urtebete doan.

-Opari oroigarria eta lortutako saria egiaztatzen duen diploma.

Ohorezko saria:

- Elkargokide izateko urtebete doan.

-Opari oroigarria eta lortutako saria egiaztatzen duen diploma.

## I. ERANSKINA

COPGI SARIAK, Lan, Erakunde eta Giza Baliabideen arloa, 2021/2022 ikasturtea.

Lanaren izena edo identifikazioa:

Egilearen izena eta NANA:

Helbidea:

Harremanetarako telefonoak:

Helbide elektronikoa:

Lana aurkezten den eguna: